

Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco

Historiako Gradua

2019/20 Ikasturte akademikoa

ANTON ABAUNZA SANCHEZ

**Ermuko Andra Mariko kultura materiala:
Oinetakoek kontatzen dutena.**



Tutorea: Sergio Escribano Ruiz

Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	3. or.
2.	METODOLOGIA	5. or.
2.1.	Oinarri teorikoak.	5. or.
2.2.	Oinarri analitikoak.	7. or.
3.	INDIBIDUOEN ETA OINETAKOEN DESKRIBAPENA	10. or.
4.	BEHETIK GORAKO EZTABAIDA: Oinetakoetatik garaiko gizartera	16. or.
4.1.	Kortxozko zoladun oinetakoa.	18. or.
4.2.	Narruzko zoladun oinetakoak.	20. or.
5.	ONDORIOAK	23. or.
6.	BIBLIOGRAFIA	25. or.

LABURPENA

2015. eta 2020. urteen bitartean, Ermuko Andra Mariko Santutegian indusketa arkeologikoak aurrera eraman dira eta horiei esker, eraikitako multzo monumentalaren inguruko ezagutzan asko sakontzea eta hedatzea lortu izan da. Elizako nekropoliaren indusketan, material ezberdin ugari aurkitu dira eta lan honen ikergaia, bertan aurkitu egin den oinetakoen bilduma da. Ikerketa honetan, beraz, zazpi hilobitan aurkitutako zazpi indibiduen oinetakoak aztertzen dira.

Kultura materialaren arrasto hauek, Andra Mariko hirugarren elizaren nekropolian aurkitu dira. Zehazki, oinetakoak nekropoli horretako bigarren eta laugarren ehorzketa faseetan erregistratu egin dira, XVI. eta XVIII. mendeen arteko kronologia ezarrita duten ehorzketetan. Oinetakoen bilduma hau, txikia izan arren oso esanguratsua da, nagusiki bi mota ezberdinetako oinetakoak ikusten direlako, narruzkoak eta kortxozkoak. Ezberdintasun argi hauek, materialak ikertzera eta ondorengo galdera planteatzera eraman naute: Oinetakoetan ikusten diren ezberdintasunak gizartean ere ikusi daiteke?

Lan honen helburu nagusia, material hauen ikerketa arkeologikoak eman dezakeen informazioa aztertzea da, oinetako hauen deskribapena eta interpretazioa egiteko. Izan ere, garapen handiak egon dira oinetakoen lehenengo ikerketa sistematikoak eta interpretatiboak egiten hasi zirenetik, eta azken hamarkadan, ikuspuntu berriekin egin diren ikerketak plazaratu egin dira. Kasu honetan, materialekin eta hilobien erregistro fitxekin egin dudana ikerketa lanean oinarritutako informazioa eta deskribapen objektiboak ematen dira. Horretaz aparte, ikuspuntu kritikoarekin egindako interpretazioak ere proposatzen dira. Horrela, materialek eman dezaketen informaziotik abiatuz, gizartea ikertzeko ematen duten informazioaren aukerak baloratuko dira.

Interpretazio aproposak egiteko, materialak testuinguru arkeologikoetan aztertzen diren bezala, oinetakoak ere ehorzketen testuinguruan ikertu behar dira. Hau da, oinetakoak eta gizakiak erlazionatu egin behar dira bi gauzak batera ikertuz. Izan ere janzkerak, pertsona baten ezaugarrien inguruko informazioa eman dezake eta era berean, indibiduoak bere oinetakoek izan dezaketen esanguraren berri ematen dute ere. Planteamendu honekin,

ikerketa honetan indibiduoak eta gizakiak aztertu egiten dira izan dezaketen erlazioa interpretatzeko.

Lan honen bukaeran, oinetakoek gizarte ezberdintasunak aztertzeko ematen duten informazioa interpretatu egiten da, errepresentatzen duten gizartea ezagutzeko tresna bezala baliatuz. Hau da, oinetakoetan ikusten diren forma, ekoizpen eta kalitatearen ezaugarriak, gizarte maila ezberdinekin erlazionatzen dira. Modu horretan, nekropoli horretan lurperatuta zegoen jendearen identitatea eta maila soziala ikertu dira. Orotara, oinetakoak kontuan izanik bi talde nagusi desberdintzen dira, kalitate handiko oinetakodunak eta kalitate baxuagoko oinetakoak zeramatenak. Era berean, oinetakoetaz baliatuz, Aro Modernoko gizarte ezberdintasunak ikertzen dira errealitate historiko honen ezagutzan aurrepausuak emanez.

1. SARRERA

Ikerketa honen helburua, Ermuko Andra Mari santutegian (Laudio, Araba) egindako indusketetako materialen analisi interpretatiboa egitea da, izan ere, indusketa lanei esker, bertan kultura material multzo esanguratsu bat berreskuratu ahal izan da.

Santutegia osatzen duen multzo monumentalean, bost indusketa kanpaina egin dira 2014. eta 2019. urteen bitartean eta kanpaina hauetan, bai tenpluaren barnealdea zein honen inguruak induskatu egin dira. Urtez urteko kanpainek, Ermualdeko multzoaren okupazio eta eraikuntza sekuentzia ezagutzera eman dute (Escribano, 2018: 40). 2015. urtean, gaur egungo elizaren ipar-mendebaldeko izkinan lehen zundaketa egin zen eta induskatutako esparrua mendebalderantz zabaltzen joan zen, 2019. urtean hegoaldeko nabea induskatzen bukatu zen arte.

Tenpluaren barnealdean egindako indusketa horietan, eliza honen aurretik zeuden beste bi eliza desberdinen arrastoak erregistratu egin dira. Aurkitu diren eraikuntza horien arrastoak kontuan izanda, hiru eraikuntza fase nagusi desberdinu daitezke. Kronologikoki azalduta, lehenengo fasean XI-XIII. mendeen artean, lehen eliza txiki baten eraikuntza arrastoak eta lurperaketak erregistratu egin dira. XIV-XV. mendeetan, bigarren fasean, aurreko eraikina eraitsi zuten eta bitarteko eliza handiago bat eraikitzen hasi ziren. Hirugarren fasean, XV. mendeko bukaeran eta XVI. mendeko hasieran, eliza handiago bat eraiki zen

aurreko eliza erabiltzen zen bitartean. Eliza horri, hegoaldean nabe bat gehitu zitzaion (Escribano & Martínez, 2020: 52) eta bertan hilobiraketa ugari aurkitu egin dira. Azkenik aipatu beharra dago, gaur egun ikusten dugun multzo monumentalaren itxura XVIII. mendeko erreforma barrokoaren aztarna dela.

Santutegian induskatu diren nekropolietako hilobi guztiak egungo elizaren barnealdean aurkitu dira, hegoaldeko nabea ehorzketa gune nagusia izanik. Bertan, ehun hildako inguru aurkitu dira posizio anatomikoan eta betekinetan arrasto antropologiko ugari aurkitu dira ere. Esanguratsua da leku murriztu honetan dagoen hilobien dentsitate handia eta nekropoli honetan aurkitutako material desberdinen kantitatea.

Aurkitutako materialak lan honen oinarria izango dira, izan ere, aztarnategiko baldintzek material organiko zein inorganikoaren kontserbazioa baldintzatu dute. Aurkitutako pieza hauen artean zapatak bezalako material organikoak zein txanponak edota arrosarioak bezalako elementu inorganikoak nabarmentzen dira. Horien artean, oinetakoen bilduma esanguratsuan oinarrituko naiz ikerketa hau egiteko, izan ere Araban, ez da horrelako multzorik aurkitu eta Euskal Herrian ere, oso eskasak dira.

Ikerketa hau, esan bezala, oinetako horietan oinarrituko da eta helburu nagusia hauen errealitate materiala aztertzea da. Kultura material honen ezaugarri orokorrak ikertuz, iturri arkeologikoek gizarte ezberdintasunak erakusteko duten ahalmena aztertuko dut. Zehazki, ikerketan, Ermualdeko XVI-XVIII. mende arteko zazpi oinetakoak aztertuko ditut. Oinetako hauen ikerketak, indusketari buruz argitaratu diren beste ikerketa batzuekin batera, zonalde honetan Aro Modernoan lurperatuta izan zen jendearen egunerokotasunera hurbiltzeko aukera ematen digu.

Ikerketa hau, bost ataletan antolatuta dago. Sarrera honen ondoren, materialen aspektu bakoitza ikertzeko erabili dudan metodologia azaltzen duen atal bat dago. Ondoren ikertzen ditudan hilobien indibiduoak eta materialak deskribatzen ditut. Jarraian, arrastoen interpretazioaren inguruko eztabaida aurkezten dut, oinetakoak iturri arkeologiko moduan gizartea analizatzeko dituzten aukerak plazaratuz. Azkenik, ondorio batzuk laburtu ditut lanaren alderdi garrantzitsuenak barneratuz.

2. METODOLOGIA

Metodologiari dagokionez, ikerketa honen abiapuntua Ermuko materialen ikerketa da. Kasu honetan, oinetakoen errealitate materiala ikertzeko, aproposena materialak zuzenean aztertzea izango litzateke. Hala ere, egungo egoera kontuan izanda eta kontzintamendua dela eta, ikerketa lanaren abiapuntua egokitu behar izan da. Soilik behin ikusi ahal izan ditut materialak, baina zaharberritze zentroko langileen laguntza telematikoaren bidez, argazkiak eta bestelako informazioa eskuratu ahal izan ditut. Beraz, lan hau aurrera eramateko oinarritzko irudiak, bibliografia eta gomendioak jaso izana eskertu beharrezkoa da. Bereziki Sergio Escribano Ruiz-en ekimena, bitartekaritza lana eta proiektuan parte hartzen ustea. Baita, Paloma Lopez Sebastianen lana, argazkiak, irudiak eta gomendioak eman dizkidalako eta oso baliagarriak izan zaizkit. Azkenik, lanaren oinarria diren materialen argazkiak, eranskinetan aurkesten diranak, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren Zaharberrikuntza Zerbitzuaren argazkiak dira eta lan honetarako erraztu dizkidate.

Esan beharra dago beraz, pandemia mundial honek ez dituela ikasketak eta ikerketak geldiarazi, eta hori gure aldetik, garaipen bat da. Zentzu honetan, ikerketa hau baliabide informatikoak eskaintzen dituzten aukera guztiak erabiltzeko aukera ezin hobea izan da. Izan ere, oinetakoen ikerketa birtual honek, oinetakoen inguruko interpretazioa eta planteamendu berritagarri batzuk irakurtzera eraman dit. Ikerketa honetan, beraz, materialak ezin izan ditut nahi izango nuen beste ikertu, baina oinetakoek gizartea ikertzeko duten garrantzia eta interpretazio desberdinak ikertzeko aukera izan dut.

Indusketa honetan ez dira oinetako asko bere osotasunean kontserbatu. Hala ere, oinetako hauek multzo interesgarria osatzen dute, kontserbatu diren piezen egoera oso ona delako. Gainera, bilduma esanguratsua dela kontsideratu dezakegu, Euskal Herrian horrelako aurkikuntzak bakanak izaten direlako, esaterako, Vitoriako Andra Mariko Katedralean, Artzeniegan edo Bilboko San Antoneko elizan aurkitutako oinetakoak.

2.1. Oinarri teorikoak.

Ikerketa honen metodologia, oinetakoei buruz egin diren beste ikerketa batzuetan oinarritzen da. Oinetakoen inguruko ikerketa arkeologikoak, batez ere Arkeologia Historikoaren arloan egin dira, Europan eta Amerika iparraldean. Ikerketa ugari plazaratu

egin dira eta autore horien artean askok bat datoz 1968. urtean Anderson-ek esaten zuenarekin, hau da, materialen deskripzio eta klasifikazio soilak gainditu behar direla (Salerno, 2006: 48; White, 2009: 142; Quirk & Beaudoin, 2015: 27). Proiektu hauek nagusiki XIX. mendeko aztarnak ikertzen dituzte, nahiz eta tarte kronologiko zabalagoak ere ikuskatu. Adibidez, aipagarriak dira aurreko hamarkadako egin diren ikerketa lanak, besteak beste Boston-eko *The Mill Creek Shoe Project* (White, 2009: 142) eta *Proyecto Arqueología Histórica Antártica* (Salerno, 2009).

Autore horietako batek, Melisa Salernok, *Arqueología de la indumentaria* lanean, janzkeraren ikerketa arkeologikorako oinarri teorikoak eta metodologikoak ematen ditu. Janzkeraren arkeologia Arkeologia Historikoa, Soziologia eta Historiaren proposamenak biltzen ditu perspektiba interdisziplinarrarekin, Aro Modernoaren sorrera ikertzeko. Bereziki, kapitalismoaren sorreraren garaiko janzkeraren garapenak aztertzen ditu eta janzkerak, identitateen eraikuntza soziala ikertzeko duen gaitasuna nabarmentzen du (Salerno, 2006: 35).

Europar, oinetakoen arkeologia landu duen autore aipagarri bat Aruñas Puškorius Lituaniarra da. Kasu honetan, iturri literarioak, ikonografikoak eta arkeologikoak erabiltzen ditu ikuspuntu kritiko batekin, Vilniuseko gazteluaren indusketako oinetakoak aztertzeko eta Aro Modernoko gizarte estamentuekin identifikatzeko (Puškorius, 2012: 158).

Aro Modernoari dagokionez, ikerketa arkeologikoak nahiko berriak dira (Funari & Brittez, 2006: 18) eta Iberiar Penintsulan Ertaro ondorengo ikerketak pairatzen duten egoera esakasa da (Barrachina & Escribano, 2011: 219). Ikerketa honetan, arkeologia historiako epe luzeago bat bezala ulertzen da (Azkarate & Escribano, 2014: 97; eta Barrachina & Escribano, 2011: 220), Ertaro ondotik iragan hurbilenera iristen dena eta Mundu Modernoaren sorrera prozesuan jatorria duena.

Imízcoz Beunza, J. M^a., García Fernández, M. eta Esteban Ochoa de Eribe, J. historialeriek esaten duten bezala, 1980ko hamarkadan R. Chartier historialariak, Antzinako Erregimeneren errepresentazioaren nozioak ikertzeko objektu forma eta kodigoetan oinarrituta, proposamen garrantzitsuak egin zituen (Imízcoz et al., 2019: 10). Autore berdinek aipatzen duten bezala, gizartea osatzen duten pertsonen haien ekintzekin gizarte horren formakuntzan

eragiten dute, eta Molina Martin-ek adierazten duen bezala, ekintza horien artean, janzkera bezalako praktika kulturalak identitatea janzten dutenak dira (Imízcoz et al., 2019: 10).

Beste alde batetik, arkeologian ere, Melisa Salernok, Squicciarino, David, Barnard eta beste autore batzuetan oinarrituta, janzkera gizartearen parte funtsezko parte dela eta giza komunikaziorako sistema boteretsu bat dela adierazten du (Salerno, 2006: 1). Halatan, janzkera praktikei, Aro Modernoan esangura sozio-politikoak ematen zitzaien eta hauen bidez nabarmenkeria biderkatzen zen. Beraz, maila ezberdinetako jendeak janzkera ezberdina eraman zezaketen haien gizarte egoeraren arabera eta praktika horiek ezberdintasunak adierazteko erabiliko ziren. Era berean, estamentuen arteko ezberdintasunak ez ezik, janzkera, sexuaren adierazle argia ere bazen, izan ere, Aro Modernoko gizarte patriarkalean identitate sexualari garrantzi handia ematen zitzaion, gizonen botere egoera justifikatzeko tresna bat zelako (Giorgi, 2013: 25). Beraz, Antzinako Erregimenean gizonen janzkera, emakumeen janzkeratik ezberdina zen generoa erakusten zuelako eta botere egoeraren adierazlea zelako.

Ikuspuntu ezberdin horiek kontuan izanik, nire ikeketa, janzkera praktiketan eta horien gizarte inplikazioetan oinarritzen da. Oinetakoak informazio iturri oso aberatsak dira, errepresentatzen duten gizartea ezagutzeko eta ondare material hauen ekoizpen modua, forma eta ornamentazioa ezagutzeko, baina baita ere giza taldeen identitatearen ezaugarriak aztertzeke baliabide bat izan daiteke; ezaugarri hauek etnikoak, klasekoak edo generokoak izan daitezkeelako (Salerno, 2009). Gainera, aztertuko ditudan oinetakoek ezberdintasun handiak dituzte eta hauen itxura konparatuz, indibiduen arteko gizarte desberdintasunak aztertuko ditut eta, Aruñas Puškorius jarraituz, Aro Modernoko zer gizarte estamentukoak izan daitezkeen interpretatuko dut.

2.2. Oinarri analitikoak

Oinetakoen ikerketa arkeologikoa egiteko, abiapuntua hauen ezaugarri materialak dira. Lehenik, materialen eta testuinguru arkeologikoaren informazioa bildu dut, aztarnen deskribapen zientifikoa egiteko. Atal honetan, indusketako erregistro arkeologikoaren informazio zientifikoa oinarritzen nahiz eta dokumentazioa, hilobien deskribapen stratigrafikoa, kronologikoa eta antropologikoa azaltzeko erabili dut. Informazioa, Ermualdeko Andra Mariko 2015-2018ko kanpainen txostenetatik (Escribano & Martínez,

2020), ehorzketen erregistro fitxetatik, Maite Iris García-ren informe osteoarkeologikotik (García, 2019) eta Gabriel Martín-en informe antropologikotik (Marín, 2019) atera dut¹.

Materialak deskribatzeko, irizpide morfologikoak eta fabrikazio irizpideak erabili ditut. Esan bezala, kasu honetan, gehienbat oinetakoen zolak kontserbatu egin dira. Hala ere, oinetakoak ikertzeak, informazio garrantzitsua eman dezake, izan ere oinetakoaren zola eta goikaldea lotzeko erabili den sistema mota aztertu daiteke oinetakoa nola ekoiztu den jakiteko (Salerno, 2009). Ikerketa enpiriko honekin, oinetakoen inguruko aspektu ezberdinen informazioa bildu egin dut eta orokorrean, beste autoreek erabiltzen dituzten analisi kategoriak hartu ditut kontuanoinetakoak aztertzerako orduan. Bestalde, materialak lehen eskuz ikusteko aukera izan dut eta oinetakoen joskeraren zulo motak oso adierazgarriak iruditu zaizkit, beraz, ikerketan barneratu ditut.

Aztertu ahal izan ditudan ezaugarriak orden honetan ageri dira deskribapenenan:

- Oinetakoaren atalen forma: Lehenik, kontserbatu diren oinetakoen atalen deskribapena ematen dut. Oinetakoa, osoa edo soilik zolaren deskribapena izan daiteke eta horren forma orokorra eta zein oinetakoa den azaltzen dut.
- Materiala eta kolorea: Oinetakoen materiala eta kolorea deskribatuko dira. Material ezberdin bakoitzak propietate zehatz batzuk ditu eta oinetakoen ekoizpenean ezaugarri konkretu batzuk lortzeko erabiltzen dira, adibidez, inpermeabilitatea, malgutasuna, iraunkortasuna edota erosotasuna.
- Apaindura: Oinetakoen berezko ezaugarrietaz aparte, izan dezaketen beste aldaera guztiak apaingarriak dira. Hauek, mota ugariak izan daitezke eta konplexutasun maila ezberdinak dituzte.
- Joskera zuloak: Oinetakoen joskeraren zuloak, zolaren ertzean egiten diren perforazioak dira, bertatik haria pasatzeko. Zulo hauek, oinetakoaren ekoizpenaren kalitatearen berri eman dezakete, beraz, zuloak gero eta txikiagoak eta erregularragoak izan, gero eta joskera gehiago eta trinkoagoak izango ditu eta

¹ Esan beharra dago, proiektu honen emaitzak ikerketa prozesuan daudela eta informazioa lortu ahal izana eta Santa Mariako indusketan egon ahal izana eskertu beharrezkoak direla ere.

oinetakoak iraunkorragoak izango da. Gainera, zulo txikiak eta erregularrak egitea denbora gehiago kostatzen zaio zapatariari.

- Neurri orokorrak: Oinetakoaren neurriak, oinetakoaren formaren aspektu batzuk jakiteko balio dute. Oinetakoaren ideia orokor bat egiteko, Melisa Salerno proposatzen dituen dimentsioak izaten dira kontuan (Salerno, 2009): luzeera, taloietatik puntara neurtuta, zabalera hiru puntu ezberdinetan neurtuta, hau da, oinetakoaren taloiaren zabalera maximoa, oinetakoaren laurdenaren zabalera minimoa eta puntako zabalera maximoa neurtu. Kontuan izan behar da, neurriak hartu direnerako narrua lehortu egin dela eta bolumena txikitzeko joera duela.
- Erabilera markak eta bestelako ezaugarri deigarriak: Erabilera markak ere, oinetakoaren kalitatea eta iraunkortasunari buruzko informazioa eman dezakete. Hauek, ibiltzearekin sortzen diren higadurak dira eta zapata neurri txikiagokoak eramateagatik agertu daitezke, mina edo oinetakoaren deformazioa eraginez. Normalean, erabilera markak, takoiak zorua ukitze puntuan eta oinetakoaren puntuaren erdialdeko zonaldean agertzen dira, (Salerno, 2009) oinetakoaren metatarsianoak falangeekin bat egiten duten zonaldean.

Behin materialen oinarrizko informazioa eta materialen aspektu tipologikoak kontuan izanik, oinetakoaren analisi interpretatiboa egingo dut. Analisi honetan, aurreko ataletan bildutako informazio lantzen da, oinetakoak eta indibiduoak duten erlazioa ikertzeko. Oinetakoak indibiduoekin batera ikertuko ditut, baina baita taldeak osatzen duen multzoarekin batera, interpretazio partikularrak eta orokorrak egin ahal izateko. Modu honetan, oinetakoak dituzten antzekotasunak edo ezberdintasunak nabarmendu nahi ditut, gizarte taldeen arteko ezberdintasunak ikertzeko erabiliko ditudanak.

Atal honetarako, beste indusketa batzuetan egin diren ikerketen emaitzetan oinarrizko nahiz. Batez ere, Melisa Salerno, Aruñas Puskorius, Laura Quirk eta Matthew Beaudoin autoreak erabili ditut oinetakoak ikertzeko gidalerroak ematen dituztelako. Informazioa osatzeko eta garatzeko, Ermuko antzekoak izan daitezkeen oinetakoaren adibideak eta erreferentzia historiko eta arkeologikoak bilatu ditut, bai bibliografian, zein artikulu akademikoak eta museo ezberdinetako material digitaletan. Iturriak era kritiko batean erabili ditut, autore batzuek eta besteek esaten dutena konparatuz eta argazki ezberdinak aztertuz,

ikuspuntu ahalik eta zabalena izateko. Informazioaren bilaketa egiteko erabili dudan marko kronologikoa, azaldutako hilobien txanponak determinatu dute, beraz, kronologikoki ikerketa lan honen jakintza arloa XVII. eta XVIII. mendeak barneratzen ditu. Hala ere, kontuan izan behar da garai konkretu bateko ondarea ez dela leku guztietan berdina izaten², beraz, kontsultatu dudan marko kronologikoa zabalagoa izan da. Gainera, gure esparruan ez dira Aro Modernoko oinetakoen inguruko analisi interpretatibo ugari plazaratu, hortaz, kasu honetan, kontsultatutako marko geografikoa ere zabalagoa izan da.

3. INDIBIDUOEN ETA OINETAKOEN DESKRIBAPENA

Ikerketa honetarako, Ermuko Andra Mariko bigarren elizako nekropoli horretan aurkitutako sei hildako aukeratu ditut eta indibiduo hauek amankomunean duten ezaugarria oinetakoak dituztela da. Deskribapen honetan indibiduoak eta hilobietan aurkitu egin diren oinetakoak deskribatzen dira. Gainera, nekropoli bereko 433. UEan aurkitu zen kortxozko oinetakoak barneratuko dut ezberdintasunak azpimarratzeko asmoz. Indibiduoak izendatzerako orduan indusketan erabiltzen dugun kode berdina erabiliko dut, hau da, sigla (SYE), unitate estratigrafikoa (UE) eta ehorzketa zenbakia (Ent). Oinetakoak izendatzeko indibiduo eta unitatearen zenbaki berdina erabiltzea erabaki dugu:

SYE'18 UE 419 Ent. 26: Unitate honen ezaugarriak bereziak dira eta besteekin konparatzen baditugu guztiz ezberdinak izango dira. Ehorzketa hau, hegoaldeko nabearen hego-ekialdeko izkinan kokatu zuten, ekialdetik mendebaldera orientatua eta bi hilobien lekua hartzen du, besteak ez bezala. Hilobi hau gizon bati dagokio, 1,65 metro inguru neurtzen zuena, eta 33-54 urte inguru zituenean hil zena (García, 2019: 72). Hilobi honek dituen ezaugarriengatik, apaiz baten hilobia dela jakin da. Ehorzketa osorik aurkitu egin da eta hilobi honekin, indibiduoak zein janzkerarekin lurperatu zuten jakin daiteke, bertan, zapatak eta kasullaren ehunen arrastoak aurkitu direlako. Gainera, informe osteologikoaren arabera, hortzerian erretzen zuenaren seinaleak ditu eta esan daiteke, guztien artean erretzen

² Melisa Salerno "Los sentidos otorgados a las prendas no son fijos: varían en función del tiempo y espacio en que las mismas fueron vestidas" (Salerno, 2006: 50)

zuen bakarra zela (García, 2019: 179). Honetaz aparte, ehorzketa honen betekinean (418. UE) sei txanpon aurkitu dira, 1512-1515. eta 1654. urteen bitartean datatu direnak.

- Oinetakoei dagokionez, osorik aurkitu den pieza bakarra bere jabearen ezkerreko oinan zeramana da (1. irudia³) eta barnealdean orkatilaren hezurak zituen. Oinetako honek, ezkerreko oinaren forma du, punta borobilduarekin. Oinetakoa narru beltz finez eginda dago eta zolak narruzko geruza lodiagoak ditu. Esan bezala, oinetako honek, atal guztiak ditu, hau da, takoia, goialdea edo pala eta itxigailua kontserbatu ditu. Azken hau, narruzko tira bat da, oinetakoa estutzeko balio duena. Neurriei dagokionez, 25,7 zm-ko luzera dauka, taloiaren zabalera 8,3 zm-koa da, laurdena 7 zm-koa da eta puntan 10,4 zm ditu.

Bestalde, hilobi honetan eskuineko oinetako baten solaren bi atal aurkitu dira ere (2. irudia). Bi zola hauek, eskuineko oinaren forma dute, punta borobilduarekin eta narruz eginda daude. Lehenengo zolak, bi geruza lodi ditu eta takoia hiru geruzez osatuta dago. Kanpo-zolak ebakidura luzeak ditu ertzaren parean eta horietan, josketarako zuloak ikusi daitezke. Kasu honetan, zulo hauek oso txikiak dira, izan ere, milimetro bat inguru dute eta oso era erregularrean eginda daude. Taloiaren aldean, takoia zeharkatzen dituzten lau zuloak daude. Horietako hiru egurrezko ziriak dituzte eta besteak hiltze bat dauka. Neurriei dagokionez, zola honek 25,6 zm-ko luzera dauka, taloiaren zabalera 7,9 zm-koa da, laurdena 6,9 zm eta puntan 9,4 zm ditu. Bigarren alea, oinetakoaren barne-zola, narru ilunago eta finago batekin eginda dago. Neurriak aurreko zolaren antzekoak dira, 24,8 zm-luzeera, taloiaren zabalera 5,6 zm ditu, laurdena 6,8 zm eta puntan 9,2 zm ditu.

SYE'18 UE 425 Ent. 28: Indibiduo hau ziurrenik gizon bat zen eta 30-54 urte bitartean zituenean hil egin zen (Marín, 2019: 28).

- Indibiduo honen ezkerreko oinean, oinetako baten zolaren erdia eta takoia arrastoak kontserbatu dira. Materialari dagokionez, oinetako hau narru beltz finirekin eginda dago. Joskeraren zuloak estuak dira, oso erregularrak eta forma luzatua dute.

³ Irudiak lanarekin batzen dudana anexo batean ikusi daitezke.

Zola hone ezker aldean, jostera zulo handiko borobilak eta irregularrak ditu, zulo luzatuen gainetik. Horiek, konponketa baten seinaleak izan daitezke. Oinetakoaren taloian, erronbo formako lau zulo ditu, takoiaren bi geruzak zeharkatzen dituztenak. Oinetakoaren kontserbatu den zatiaren dimentsio orokorrak hurrengoak dira, 12,7 zm-ko luzera, taloiaren zabalera 5,2 zm-koa da eta laurdenaren zabalera 3,6 zm-koa da.

SYE'18 UE 464 Ent. 36: Hildako honek, 33-57 urte inguru zituen, 1,63-1,73 metro inguru neurtzen zuen hil zenean eta sexua ezin izan da zehaztu (García, 2019: 126). Bestalde, gorpu hau bi oinetakoekin lurperatua izan zen eta hilobiaren betekinean txanpon bat eta beste bi oinetako aurkitu egin ziren.

- Hildakoaren oinetakoen ebidentziak bi zolen aztarnak dira (3. irudia). Zehazki, bi zola, kanpo zola bat, goikaldearen zati txikiak eta itxigailuaren belarria aurkitu egin dira. Oinetako hauek, ezker eta eskuineko oinen foema eta punta borobildua dute. Materialei dagokionez, zolak marroi ilun koloreko narru lodiaz eginda daude eta goialdearen zatiak berriz narru beltz finagoarekin eginda daude. Kanpo zolak, erabileraren eta higaduraren aztarnak ditu eta eskuineko zolek lotura bat izan dutenaren markak dituzte. Josketaren zuloak handiak dira, forma laukizuzena dute, oso erregularrak dira eta taloia eta laurdenaren bitartean puntu bat bikoiztu egiten da. Zolaren kanpoko aurpegian josteta egiteko ebakidurak ikusi daitezke. Taloiaren zirkulu formako zuloa dute, kasu honetan takoiaren iltzeekin eginda egongo zen. Bestalde, aipagarria da bi zolek taloiaren aldean Λ formako markak dituztela eta kasu batean materiala zeharkatzen dute. Neurriei dagokionez, lehenengo materialak 21 zm-ko luzera du, 6zm-ko zabalera taloian, 5,2 zm laurdenean eta 8,2 zm ditu puntan. Kasu honetan, oinetakoaren sekzioa meheagoa da taloiaren aldean, 3,8mm eta puntan lodiagoa da, 4,1mm.

Bigarren aleak, marka bereziak ditu. Zola honen kanpoko aurpegian, taloia eta laurdenaren bitartean, ebaketa markak ditu. Marka hauek, bi itxura ezberdinetako parteak ezberdintzen dituzte, taloiaren aldean, narruaren kolore marroi iluna ikusten da eta puntaren aldean, berriz, narruaren gainazala gastatua dago. Ebidentzia hau,

oinetakoak takoia izan zuenaren seinalea da. Neurriei dagokionez, oinetakoak 17 zm-ko luzera dauka eta taloiaren zabalera 5,8zm-koa da, 5,1 zm laurdenean eta puntan 6,9 zm ditu. Zolaren lodiera, kasu honetan 5,8 mmko da taloian eta 4,5mmkoa puntan.

SYE'18 UE 467 Ent. 37: Hildako hau emakume bat da eta 33-57 urte bitartean zituenean hil egin zen (Marín, 2019: 72) . Gorpuarekin batera, arrosario baten katearen eta aleen arrastoak zein zapaten aztarnak aurkitu ziren.

- Kontserbatutako oinetako hau, taloiaren aldeko zolaren zati bati dagokio (4. irudia). Kolore marroi iluneko narruz eginda dagoe eta geruza bakoitzaren lodiera 3,8 mm ingurukoa da. Taloiak, 12,5 mm-ko altuera dauka eta bata bestearen gainean pilatutako hiru geruzek osatzen dute. Taloian ere, erronbo formako bi perforazio ditu eta 14,6 mm-ko luzera eta 3,7 mm-ko zabalera duen egurrezko ziri batekin aurkitu egin zen. Zolaren aurpegi batean joskerarentzako ebakidurak ditu eta zuloak handiak eta irregularrak dira. Neurriei dagokionez, kontserbatu den zatia 7,3 zm-ko luzera dauka, 4,7zm neurtzen ditu takoiaaren zabalera eta laurdenak 2,7 zm ditu.

SYE'18 UE 532 Ent. 56: Gorpu oso egoera txarrean kontserbatu egin da, hezetetasunak eta giza ekintzek partzialki suntsitu egin dutelako. Hala ere, bi oinetakoen zati txiki ugari kontserbatu egin dira.

- Kasu honetan, taloiaren aldeko bi zola ezberdin daude (5. irudia) eta barne-zola eta goikaldearen zati txiki ugari dituzte. Materiala, kolore beltzeko narrua da eta beste oinetakoena baino itxura hobea dauka, izan ere, finagoa da eta hobeto kontserbatu egin da. Joskeraren zuloak handiak dira, forma borobildua dute eta era erregularrean eginda daude. Narruaren lodiera fina da, hau da, 1,2 mm eta taloiaren zonaldean geruza ezberdinak pilatzen dira, 3 mm-ko lodiera lortuz. Oinetakoaren zati luzeenak, 8,5 zm-ko luzera dauka, taloiaren zabalera 5,6 zm-koa da eta laurdena 4,2 zm neurtzen ditu.

SYE'18 UE 539 Ent. 58: Hilobi honek suntsipen handia jasan zuen honen bere gainean beste hilobi bat egin zutelako. Hau da, 58. ehorzketa beste hilobi batek mozten du eta soilik hildakoaren eskumako hanka kontserbatu da posizio anatomikoan. Hala ere, zorionez, hanka horren oinetakoa eta lokarrien arrastoak kontserbatu egin dira.

- Kasu honetan, eskuineko oinaren oinetakoa da eta punta borobildua dauka (6. irudia). Materiala narru lodia da, 4 mm inguruko lodiera daukana. Zolak, bi geruza ditu eta takioia bost geruzaz osatuta dago. Taloiaren errobo itxurako lau perforazio ditu takoiaren geruza guztiak zeharkatzen dituztenak egurrezko ziriek. Gainera, beste perforazio bat ere badu forma borobilekoa. Joskeraren zuloak txikiak dira, milimetro bat baino estuagoak, forma luzatua dute eta nahiko irregularrak dira. Oinetako honen kanpo-zolak higadura eta erabilera markak ditu. Luzera 19,8 zm-koa da, taloiaren zabalera 5,1 zm, laurdenak 3 zentimetro ditu eta puntak 7 zm-ko zabalera dauka.

SYE'18 UE 443: Hilobi honetan, bi oinetakoen kortxozko zolak aurkitu dira eta horietako bat, kontserbazio egoera onean dago (7. irudia). Oinetako hau, ezkerreko oinetakoaren forma duen zola altu bat da. Pieza nagusia, kortxoz eginda dago eta oso forma definitua eta akabera leuna du. Beheko aurpegian, narruzko bi geruza ditu eta horietan, joskerak egiteko zuloak ikusi daitezke. Kasu honetan, zulo horiek estuak dira, forma luzatuarekin eta oso erregularrak. Oinetakoaren zola honen neurriak ezberdinak dira goiko eta beheko aurpegietan. Luzera goiko aurpegian 20,2 zm-koa da eta beheko aurpegian 18 zm ditu. Takoiaren zabalera 5 zm-koa da, laurdena 3,2 zm-koa eta oinetakoaren puntak 6,44 zm-ko zabalera dauka. Zolaren altuera 4,4 zm-koa da taloiaren aldean eta 3,2 zm oinetakoaren puntan.

Deskribatutako ehorzketak hirugarren elizaren barnean hilobiratuak izan ziren, konkretuki, hegoaldeko nabean. Hauek, XVI. eta XVIII. mendeen arteko momentu desberdinetan hilobiratu ziren, izan ere, hilobiratze espazioaren sekuentzia estratigrafikoan lau momentu desberdintzen dira (Escribano & Martínez, 2020: 46-52).

Lehenengo hilobiratze fasean (XVI. mendeko lehenengo-bigarren erdialdea) 27 hilobi erregistratu dira. Lurperaketa hauen hobiek, gaur egungo elizaren zorua mozten dute eta

buztinezko geruzez osatutako estratu batek (348. UE) hilobien betekinak estaltzen ditu. Fase honetako hilobi gehienak erdialdeko zonaldearen ekialdean daude, lau ilaratan bananduak ekialdetik mendebaldera orientatuak eta ehorzketa bakandu bat dago mendebaldeko zonaldean. Fase honetako kronologia hilobien betekinetan aurkitutako txanponek ematen dute, hauek, Fernando Katolikoaren erreinaldiko azkenengo urtekoak izanik. (Escribano & Martínez, 2020: 51-52).

Bigarren fasean (XVI. mendeko bigarren erdialdea-1641 ca.) 27 hilobitan lurperatutako 23 hildako aurkitu dira eta hildako horietatik 5 indibiduo barneratu ditut lan honetan (Ent.36, Ent.37, Ent.51, Ent.56 eta Ent.58). Hilobi hauek, aurretik aipaturiko kare eta buztinezko estratua mozten dute eta karezko zoru batek estaltzen ditu (EU 440). Nekropoli hau, hegoaldeko nabe osoan zehar zabaltzen da eta hilobi batzuk aurreko faseetan baino gehiago berrerabiliak izan ziren. Fase honetako kronologia txanponek ematen dute ere. Txanpon berriena Felipe IV.aren erregealdikoa da eta 1641. urteko kronologia ezartzen du, beraz, fasearen bukaera XVII. mendean kokatzen da. Txanpon zaharrenak hilobi batzuetako betekinetan aurkitu dira, bata Fernando Katolikoarena da, beste bat Carlos I.ak jaukitutako Fernando Katolikoarena da eta bestea Alfonso X.arena izan daitekeen obalo bat da. Fase honetako hasieraren kronologia ez dago guztiz zehaztuta eta txanponen ondorengoa izan beharko luke, hau da, XVI. mendearen bigarren erdialdekoa (Escribano & Martínez, 2020: 49-51).

Hirugarren fasea (1641-1663 ac.) laburragoa izan zen eta epe honetan 8 hilobi aurkitu dira. Estratigrafikoki karezko zorua (UE 440) mozten dute eta adreiluzko zoruaren prestaketak estaltzen ditu (UE 327-450). Aipagarria da UE 427 hilobia, egurrezko egituraren arrastoak kontserbatu direlako.

Laugarren faseko nekropolian (1663-1779 ca.), 4 ehorzketa aurkitu dira hegoaldeko nabearen ekialdeko muturrean. Bertan, lau hildako aurkitu dira egurrezko enkajonatu batean ehorztuak. Horien artean (UE 419 eta UE 425) lan honetan bi ehorzketak barneratzen dira. Hilobi hauek adreiluzko zoruak mugatzen zituen eta XVIII. mendeko harlauzez osatutako zoruak suntsitu zituen. Fase honetan, aipagarria da hilobiak mugatzen zituen egurrezko egitura, leku batzuetan kontserbatu egin dena, manufaktura onekoa eta oso erregularra (Escribano & Martínez, 2020: 46-48).

4. BEHETIK GORAKO EZTABAIDA: Oinetakoetatik garaiko gizartera.

Deskribatu ditudan materialak interpretatzeko, eztabaida honetan, autore ezberdinen ikerketen emaitzak eta hipotesiak erabiltzen ditut materialen nolakotasuna ikertzeko eta hildako horiekin duten erlazioaren analisi interpretatiboa egiteko. Hasteko, Aro Modernoan janzkerak duen garrantziaren inguruko eztabaida teorikoa aurkezten dut. Ondoren, oinetakoek klasifikazioa egin dut, kortxoeko zoladun oinetakoak eta narruzko zoladunak berezitu eta horien inguruko interpretazio ezberdinak azaltzen ditut.

Esan bezala, hasteko, kontuan izan behar dira Antzinako Erregimeneko gizarteak zituen ezaugarriak; gizarte estamentalak zen eta horrek esan nahi du, gizarteak legeek ezartzen zituzten eskubide eta betebeharren arabera ezberdintzen zela, estamentu pribilegiatuak eta pribilegiarik gabeko estamentuen artean. Gainera, ezberdintasun hauek erlijioak eta hierarkiak sendotzen zituzten (Imízcoz et al., 2020). Bestalde, Aro Modernoa hazkunde ekonomikoaren eta kulturalaren garaia ere bada eta aberastasuna hazten zen neurrian, gizarte ezberdintasunak ere handitu egin ziren. Egoera finantzarioari eta itxurari garrantzi handia ematen zitzaien eta gustu estetikoak ere findu egin zen (Puškorius, 2012: 158). Testuinguru honetan, janzkera erritu konplexu (Imízcoz et al., 2019: 11) baten parte zen gizabanakoek egoeraren berri ematen zuena.

Beraz janzkera, estatusa eta eros ahalmenaren adierazlea izanik, oinetakoek arteko ezberdintasunak ikertuz, oinetakoak gizarte maila ezberdinekin erlazionatu daitezke (Puškorius, 2012: 168). Hau da, kalitatezko ekoizpena duten oinetakoak eta luxuzko materialak erabiltzen dituztenak, goi-mailako gizarteari dagokiela pentsa liteke. Berriz, oinetakoek faktura umila denean, behe-mailako oinetakoak direla pentsa dezakegu.

Hala ere, gizarte maila ezberdinetan zein motatako oinetakoak eramaten ziren aztertzerako orduan, hainbat arazo sortzen dira. Adibidez, material mota hauen kontserbazioa ez denez oso arrunta, ikerketarako erabiltzen diren iturri nagusiak literarioak eta ikonografikoak dira gehienbat (Puškorius, 2012: 159). Kasu honetan, iturri idatziek eta piktorikoek ez dute oinetakoek inguruko informazio nahikoa ematen gizarte maila ezberdinetako oinetakoak ikertzeko. Izan ere, iturri mota hauetan luxuzko oinetakoek erreferentziak eta irudiak ageri dira batez ere eta jende xume gehiengoaren oinetakoak ozta-ozta aipatzen dira. Aldiz, gutxi izan arren, aztarna materialak aurkitu egin dira eta hauek

ikerketarako informazio aberasgarria eman dezakete. Beraz, ikerketa honetan ahalik eta kontakizun objektibo eta osotuena lortu ahal izateko, Arkeologia Historikoaz baliatuk gara, honek iturri arkeologikoak zein idatziak era kritiko batean erabiltzeko aukera ematen bait du (Barrachina & Escribano, 2011: 222), batez ere iturri batzuen eta besteen arrastoak bat ez datozenean.

Beste alde batetik, kontuan izan behar da ere, iraganeko material arkeologikoak ez duela zertan gure logikak adierazten digun erabilera izan behar, (Monton & Abejez, 2015: 17). Adibidez, aipatutako iturri literarioetan eta ikonografikoetan ageri diren oinetako motak, oso kategoria orokorrekoak izaten dira eta hauek, errepresentazioak direnez, ez dute zertan aurkitzen diren oinetakoen berdinak izan behar, eta azken hauek izaera beste logika bati erantzun diezaioke. Zentzu honetan, oso xumeak diruditen oinetakoak kalitate handikoak izan daitezke edo alderantziz. Horregatik, ezin gara materialen itxuran eta kalitatean soilik gelditu. Haatik, garrantzitsua da oinetakoak aztertzerako orduan, faktore eta ezaugarri ezberdin guztiak kontuan izatea, materialak bere testuinguru arkeologikoarekin batera aztertzea eta iturri mota ezberdinak erabiltzea ikuspuntu anitzak izateko.

Honetaz aparte, oinetakoek izan zezaketen balioa ezagutzeko, prezioaren inguruko ikerketak egin dira Europako ipar eta mendebaldean. Adibidez, Arne J. Larsen-ek *Footwear from the Gullskoen area of Bryggen* lanean, Norbegiako Bryggen-eko merkatal auzoan aurkitu ziren oinetakoak aztertzen ditu eta ondorioztatzen du kalitate oneko oinetako pare bat garestia zela eta oinetakoak erosteko ahalmenik izango ez zuen jendea ere egongo zela (Puškorius, 2012: 159). Haatik, faktore kuantitatiboez aparte, kontuan izan behar da ere zailtasun ekonomikoko garaietan, behe-mailako jendeak oinetako propioak egin izan ahal zituztela edo zaharrak zituzten oinetakoak berraprobetxatu zein konpondu.

Gizarte mailen arteko ezberdintasunak ikertzeko beste metodo bat, oinetakoen apainketa aztertzea da, izan ere Erdi Arotik aurrera, oinetakoen apainketa gero eta eskasagoa zen. Erdi Aroko eta Aro Modernoaren bitartean eman ziren gizarte aldaketek, estamentuen arteko ezberdintasunak areagotu zituzten eta XVI. mendean oinetako apaindurak goi-mailako jendearen eksklusibitatea erakusteko euskarri bilakatu ziren (Puškorius, 2012: 160).

Hala ere, batzuetan, behe-mailako pertsonak ere oineko apaindurak eraman zituzketen; Puškorius-ek, Larsen-i jarraituz adierazte duenez, kasu batzuetan behe-mailako

pertsonen oinetako apaindurak eraman zitezaketen (Puškorius, 2012: 160), hauek perforazioak izan ahal zirelarik (Puškorius, 2012: 161). Zentzu honetan, autore berak aipatzen du Londreseko Erdi Aroko apaindutako oinetakoak goi-mailako jendeari egokitzen zaizkiela eta hala ere, beste zonalde batzuetan horien antzekoak diren oinetakoak beste estamentu batzuekin erlazionatu daitezkeela edo nahiz eta antzekoak izan, beste mota bateko oinetakoak izatea (Puškorius, 2012: 160). Beraz, apainketa ez ezik, beste ezaugarri batzuk kontuan izan behar dira ere oinetako motak ezberdintzeko.

Orokorrean, oinetakoak ekoizpen moduaren arabera klasifikatu ohi dira eta deskribatu ditudan oinetakoen ekoizteko era josteta izan zen. XVIII. mendearen bukaerara arte, oinetako gehienak eskuz josi egiten ziren eta kasu gutxitan itsasketa erabiltzen zen, hau soilik takioia zolari lotzeko erabiliz. Ondoren, oinetakoak egiteko era industrialak gailendu zen baina, industrialak ez bezala, eskuz egindako oinetakoen zolako zuloak handiagoak, elkartuagoak eta irregularragoak dira (Quirk & Beaudoin, 2015: 29). Oinetakoak josteko era honetan, oinetakoaren goikoaldea zola bati zuzenean josten zitzaion beheko aldean. Josturak zolan egiten zen kanal baten bitartez babesten ziren, higadurarekin ez apurtzeko, eta josi ondoren, buelta ematen zitzaien, bibliografian *turned* bezala definitzen dena (Salerno, 2009).

Oinetakoen multzo honetan, zolari begira eta materialei dagokionez, bi mota nagusi ezberdintzen dira: kortxozko zola duten oinetakoak eta narruzko zola dutenak. Zola ekoizteko bi metodo hauek ohikoenak izan ziren XIX. mendera arte (Salerno, 2009).

4.1. Kortxozko zoladun oinetakoak.

Kortxozko zoladun oinetakoak ez dira ohiko aurkikuntzak izaten eta kontserbatu diren adibideak goi-mailako jendearen oinetakoak dira. Mota honetako oinetakoen adibide bat Wawel Gazteluan gordetzen diren Poloniako Augusto Segismundo II.aren 1530eko koroazioaren oinetakoak dira (Lileyko, 1987). Oinetako horiek, kortxozko zola izateaz gain, goialdean belusi gorriaz josita daude eta urre eta zilarrezko apaingarriak dituzte. Bestalde, Puškorius-ek *Renaissance Footwear as a Mark of Social Differentiation* lanean ikertzen dituen kortxozko zoladun oinetakoak ere, goi-mailako estamentuekin erlazionatzen dira (Puškorius, 2012: 168).

Hala ere, esan bezala, ezin daitezke kriterio berdinak aplikatu kasu guztietan, ondareak logika desberdinak izan dezatelako. Adibidez, aipagarria da XVI. mendean emakumeek goi-mailari atxikitu ohi zitzaizkion oinetako gorri altuak ere erabiltzen zituztela (Puškorius, 2012: 159). Are gehiago, tendentzia hau XVII. mendean areagotu egin zen. Garai horretan, emakumeek txapin moduko oinetakok eraman zituzten. Oinetako hauek eskalapoien antza zuten, kortxozko zola zuten eta nahiko altuak ziren, baina ez zuten taloiko hormarik. Txapinak, satin, belusi edo kolore ezberdinetako ehunekin estaltzen ziren eta batzuetan oso apainketa aberatsak izaten zituzten. Oinetako hauek kondizio klimatiko ezberdinetarako balio zuten, bai elurra, euria edo lokatzaren gainetik ibiltzeko eta aldi berean bere jabea altuagoa iruditzea eragiten zuten (De la Puerta, 2008: 70).

Hala ere, 1578. urteko G. Braun eta F. Hogenberg-en *Atlas of Cities of the World* liburuan eta iturri ikonografikoetan (Puškorius, 2012: 161), oinetako primitiboak, kortxoz egindako oinetakoak eta ehunekin egindako oinetakoak, behe-mailako klasearekin erlazionatzen dira. Oinetako mota hauek, egurrezko edo kortxozko zola eta narruzko goialdea dutenak, Erdi Aroan sortu ziren eta nekazariak erabili ohi zituzten Europako ipar mendebaldean (Salerno, 2009). Halaber, egurrezko pieza bakar batean modelatutako oinetako janzkera iraunkorrak eta merkeak izan ziren. Mota honetako eskalapoi antzeko oinetako hauek, museo etnografikoetan aurkitu ohi dira nekazarien oinetako moduan klasifikatuak.

Oinetako mota horiek, gabezia ekonomikoekin erlazionatzen zirenez, lotsagarria izan zitekeen mota honetako janzkera eramatea egoera sozialaren inguruko informazioa transmititzen zuelako (Salerno 2009). Beraz, Melisa Salerno-ren arabera, askotan oinetako mota hauek goi-mailako narruzko oinetakoen ezaugarriak imitatu ohi zituzten, adibidez oinetakoaren goialdea. Bestalde, autore berak adierazten du zola mota hauek gogorrak direnez, ibilera traketsa eragiten zutela, eta oinetako hauek oinak zauritu zitzaizketela ibilera are gehiago zailduz (Salerno, 2009). Hala ere, zentzu honetan, beste interpretazio mota batzuk egin dira ere. Aruñas Puškorius-ek adierazten du kortxoz edo egurrezko zoladun oinetakoetan pala ez zela guztiz josten zolara, taloiaren zonaldea solte utziz, eta horrek pausoak normaltasunez eman ahal izatea ahalbideratzen zuela (Puškorius, 20012 : 167).

Beraz, ondorioztatu dezakegu kortxoa mota ezberdinetako oinetakoak egiteko erabili izan zela, goi-mailakoak eta pobreenak ere. Hala ere, adierazgarria da ere kortxozko zoladun

oinetakoak oso aproposak direla Ermuko zonaldeko klima eta paisaiara egokitzeko, batez ere Esukal Herriko isurialde Atlantikoan ingurua menditsua, euritsua eta umela delako. Are gehiago, kortxoa eta egurra hotza eta hezetasunaz babesteko balio dutenez (Salerno, 2009) zola altu hauek baratza eta lokatzarako oso aproposak izango ziren.

Azkenik, ikuspuntu ezberdinak ikusita, esan dezakegu Ermuko Andra Mariko kortxozko zoladun oinetakoak goi-mailako oinetako altuekin antzekotasun gehiago dituztela nekazarien eskalapoiekin baino. Izan ere, kortxozko gorputzak oso akabera leuna dauka eta nekazarien oinetakoak, merkeagoak diren neurrian, akabera traketsagoa izango zuten. Gainera, behe-mailako kortxozko oinetakoak soilik kortxozko zola eta narruz edo oialezko goialdea edo lokarriak izaten dituzte, oinetakoa oinari lotzeko.

Beste kasu batzuetan, oinetakoa guztiz estaltzen duen ehun bat izan dezakete, goi-mailako oinetakoen itxura izateko. Kasu honetan, berriz, kortxozko zolaz aparte, narruz egindako kanpo zola bat ere badute, kortxozko gorputza babesteko balio duena. Gainera, kortxoa, behe-mailako egurrezko eskalapoia ez bezala, arinagoa, malguagoa eta bigunagoa da, eta erosoagoa eta kalitate handiagokoa ere izango zen. Beraz, oinetako hauek Ruth de la Puertak aipatzen dituen emakumeen txapinen antzekoak izan daitezke (De la Puerta, 2008: 71).

4.2. Narruzko zoladun oinetakoak.

Ikertutako narruzko zola duten oinetakoek antzeko ezaugarriak dituzte., hau da, denek zola eta takoiak dituzte. Zolak geruza ezberdinak izan ditzakete, kasu batzuetan, geruza bakarra dute eta beste batzuk berriz, hiru geruza dituzte. Era berean, takoiak ere, gainjarritako narruzko geruzekin ekoiztuta daude. Gainjarritako zolen kantitatearen ezberdintasun hauek, oinetakoaren ekoizpenaren konplexutasuna adierazten dute (Salerno, 2009), eta baita oinetakoen balioan eragin, geroz eta geruza gehiagorekin material kantitatea eta ekoizpenerako denbora zama ere handitu egiten delako. Are gehiago, Lituaniar egin den ikerketan baieztatu egiten da zola bakarreko oinetakoak behe-mailako jendearenak zirela eta zola gainjarriak dituzten oinetakoak berriz, goi-mailakoenak direla (Puškorius, 2012: 166).

Takoiei dagokionez, Antzinako Erregimenean gizonek XIX. menderaino eramaten zituzten (Salerno, 2009). Gizonen takoidun oinetako mota ezberdinak zeuden, *Bata Shoe*

Museum-eko online erakusketan ikusi daitekeen moduan. Bertan, 1600. urtetik gaur egunera arte gizonen eramanen zintzotasunak aurkezten dira (Bata Shoes Museum, 2020). Ermuko oinetakoetan, takoiak gainjartzeko egurrezko ziriak edota burdinezko iltzeak erabiltzen dituzte. Kasu honetan, ezaugarri guztiak bat datoz Adrienne Anderson-en kategorizazioarekin (Salerno, 2009), takoiak eusteko egurrezko ziriak erabiltzen dituzten oinetakoak erronbo formako zuloak dituztelako zolan eta iltzeak erabiltzen dituztenak berriz, zirkulu formakoak.

Oinetakoen narruaren kalitatearen analisiak, gizarte ezberdintasunen berri eman dezakeen beste ezaugarri bat da. Hain zuzen ere, animalia ezberdinen narruak berezitasun propioak dituzte, oinetakoen ekoizpenean ezaugarri konkretu batzuk lortzeko erabiltzen direnak. Beraz, narruaren kalitatearen arabera oinetakoen prezioa aldatu daiteke (Puškorius, 2012: 160 eta Salerno 2009). Kasu honetan ez da narru mota jakiteko analisirik egin, baina analisi bisualarekin bi motako narruak desberdindu daiteke. Orokorrean, oinetako gehienek zolan kolore marroi iluneko narru lodia erabiltzen dute. Berriz, UE 419 eta UE 539 ko oinetakoetan, zolan narru marroiaz aparte, beste elementuak narru beltz eta fin batean ekoiztuta daude.

Orokorrean, esan daiteke kalitate eta ekoizpen konplexutasun handiko oinetakoak goi-mailako jendeak eraman zituela eta hauek batez ere oreinen eta ahuntzen narruarekin egiten zirela, edo kasu batzuetan jatorri ezberdineko narruak nahasten zituzten, horien propietateen arabera. Berriz, behe-mailako jendearen oinetakoak behien kalitate baxuagoko narruarekin egiten ziren (Puškorius, 2012: 168), kolore marroi edo beltza zuten eta normalen ez zuten apaindura handirik izaten, nahiz eta kasu batzuetan perforazioak izan zitzaizketen.

Apaindurari dagokionez, Apaizaren oinetakoek goikaldea kontserbatu dute eta ez dute apainketa handirik, itxigailu sinple bat izan ezik. Berriz, 464 UE-ko oinetakoak brontzezko belarri bat dute apainketa bezala. Beraz, pentsatu daiteke unitate horietako indibiduen oinetakoak ikusiz, apainketa horiekin gainontzeko gizartetik desberdintzen zirela, baina esan bezala apainketa ez da oinetakoen kalitatearen berri ematen duen azpektu bakarra. Adibidez, Metropolitan Museum Of Art-en Ingalaterrako XVII. mendeko oinetakoen bilduma paregabea dute eta oinetako horiek, denak, narru beltzezkoak izanik apainketan ezberdintasun handiak dituzte. Horietako batzuk lauak dira eta beste batzuk berriz, perforazioak eta

belarriak bezalako osagarriak dituzte. Beraz, kontuan izan behar da, nahiz eta denak goi-mailako oinetakoak izan, oso ezaugarri ezberdinak dituztela. Honen antzeko beste adibide bat, Herberehetako Museo Nazionaleko XVI. mende bukaerako goi-mailako narruzko oinetako beltzak dira. Oineko hauek ere forma eta takoi ezberdinak dituzte, baina denek amankomunean duten elementua zolan duten oxkar apaingarria da (8. irudia). Beraz, kontuan izan behar da oinetako ereduak antzekotasun handiak izan ditzaketela, baina ezberdinak dira eta beraz ezin daitezke orokortasunik egin soilik itxuran eta apainduratan oinarrituta.

Haatik, iturri ikonografikoak ikuskatzen badira, apainketarik gabeko oinetako hauek behe-mailako jendearen oinetakoen antza handia dute. Aruñas Puškorius-ek adierazten duen bezala, 1566-1567. urteko Pieter Bruegelen *The Peasant Wedding* (9. irudia) koadroan agertzen diren oinetakoen antza handiagoa dute goi-mailako mailako klasearen oinetako koloreztuak baino (Puškorius, 2012: 161). Gainera, Espainian XVI. mendearen bigarren erdialdean, goi-mailako pertsonak perforazioekin apaindutako oinetakoak eramaten zituzten, galtzen kolore deigarriak erakusteko eta mende horretako azken laurdenean oinetakoei ebaketa luzeagoak egiten hasi ziren (Puškorius, 2012: 167).

Ondorioz, interpretazio ezberdinak kontuan izanik, esan daiteke Ermuko narruzko zoladun oinetakoak kalitate ezberdinak dituztela.

418. UEko oinetakoak, aldeztatik badakigu apaiz batenak zirela eta beraz, estamentu pribilegiatuarekin erlazionatu behar dira. Hori baieztatu egin daiteke kontuan izanik oinetako hauen goikaldea eta barne zola narru beltz finean eginda daudela, zolako joskeraren zuloak oso txikiak eta erregularrak direla eta zolak geruza ezberdinak dituela gainjarriak. 425. UEko oinetakoen narrua aurreko oinetakoaren antza handia dauka eta joskeraren zuloak ere antza handia dute. 539. UEko oinetakoak ere bi geruzako zola, erronbo formako zuloak eta egurrezko zirak ditu takoiak, baina kasu honetan joskeraren zuloak desberdinak dira, irregularrak direlako. Egurrezko ziriek egindako takoi hori 467. UEko oinetakoetan ere ikusi daiteke, eta kasu honetan joskeraren zuloak irregularrak dira ere.

464. UEko oinetakoek, berriz, ekoizpen mota ezberdina dute. Kasu honetan, joskera zuloak handiak eta erregularrak dira, takoiak iltzeekin zeharkatu ziren egurrezko zirak erabili beharrean eta apainketa moduan brontzeko belarria zuten. Brontzeko itxigailua izana, kalitate handiko oinetakoak direla pentsarazten du, baina konponketa markak ere ikusi

daitezke. Izan ere, oinetakoaren ondorengo momenturen batean eskuineko bi zolak lokarri batekin lotu egin behar izan ziren. 532. UEko oinetakoek 464. UEkoen antza dute narruaren kalitatean eta joskeraren zuloetan, nahiz eta tamaia aldetik askoz txikiagoak izan.

Ezaugarri bereizgarri horiek kontuan izanda, esan daiteke oinetakoen lehen multzoa goi-mailako gizarteari dagokiola. Bigarren multzoa, berriz kalitatezko oinetakoen elementuak ditu, baina orokorrean arrazoi gehiago izan gabe ezin daiteke ziurtatu zein gizarte mailari dagokion.

5. ONDORIOAK

Oinetakoen errealitate materiala aztertuz, errepresentatzen duten gizartea ezagutu daiteke. Gizarte desberdintasunak ikertzeko oinetakoen interpretazio ezberdinak egin daitezke, baina oinetakoak zein maila sozialekoak ziren aztertzeke, ez da nahikoa oinetako mota edo itxura kontuan izatea. Haatik, kultura material hauen ezaugarri orokorren ikerketak, oinetakoen kalitatea baldintzatzen duten faktore ezberdinen ikerketa suposatzen du. Hau da, oinetakoen kalitate orokorra ezagutzeko, oinetakoaren ekoizpen modua, atal ezberdinak, materialen jatorria eta kalitatea, eta konponketa eta higadura markak izan behar dira kontuan. Hain zuzen ere, elementu solteak aztertzen badira, hauek oinetako ezberdinetan errepikatzen direla ikusi daiteke eta beraz, elementu zolteak ez dute balio oinetako mota bat definitzeko.

Horregatik, interpretazio egokiak egiteko oinetakoen elementu guztiak izan behar dira kontuan. Hala ere, iturri arkeologiko bezala eman dezaketen informazioa aztertzeke, oinetakoen erregistro eta deskribapen sistematikoak egin behar dira ahalik eta informazio gehiago izateko eta oinetako eredu desberdinak konparatu ahal izateko. Tamalez, ikerketa gehienak soilik oinarrizko informazioa ematen dute, eta nolabaiteko ziurgabetasunak daude atal ezberdinen loturaren inguruan eta higadura marka eta konponketen inguruan.

Oinetakoen ezaugarri ezberdinen analisiak, oinetakoen kalitate orokorraren berri eman dezakete. Kalitate maila ezberdin hauek, Aro Modernoko eskaera maila ezberdinekin erlazionatu behar dira eta azken finean, erosteko ahalmenarekin eta gizarte mailarekin. Beraz,

Antzinako Erregimeneko gizarte ezberdintasunak, estamentu ezberdinetan eramaten zituzten oinetako motetan ikusi daitezke.

Hala ere, oso zaila da oinetako batzuk maila sozial batekin erlazionatzea. Oinetakoen aldaera ugari egon daitzeke eta faktore ezberdinak izan behar dira kontuan balorazio orokor bat egiteko. Gainera, arkeologikoki aurkitu egiten diren oinetakoak ez dute zertan beste motako iturrietan ageri direnak bezalakoak izan behar. Beraz, material hauek era kritiko batean aztertu behar dira eta xehetasun guztiak izan behar dira kontua interpretazioak egiteko.

Ermuko oinetakoen inguruan esan daikete, joskeraren zuloak kontuan izanik, bi ekoizteko era edo lanabez ezberdin erabili zirela. Lehenengoa, forma luzatuko intzizio oso txikiak usten zituen eta kalitate handiko joskerak egitea baliatzen zuen. Bigarrena, zirkulo handiak usten zituen oinekoaren zolan eta beraz, joskera hari lodiago batekin egingo zen eta puntada gutxiago izango zituen. Beraz, ezberdintasun honek oinetakoen kalitatean eta irankortasunean eragina izango zuen. Bestalde, ehorzketetan oinetakorik gabe aurkitu diren hildakoen hirugarren multzo bat legoke. Hauek, eliza barruan lurperatu ziren ere eta maila baxuarekin identifikatu daitezke, ez zutelako oinetakorik erosteko edo ekoizteko botere ekonomikorik; edo zeramaten oinetakoen materialak kalitate baxuagokoak zirenetan ez dira kontzerbatu.

Orotara, ziurtatu daiteke oinetakoen ikerketak, historia idazteko informazio iturri oso aberatsa direla. Oinetakoen ekoizteko moduak garapen teknologikoaren inguruko informazioa ematen du, baina baita ere moda, eros ahalmena eta behar edo esperientzia indibidualaren adierazlea da. Bestalde, oinetakoen ezaugarri tipologikoak sistematizatzen baditugu, hauek kontuan izanik oinetakoak kronotipologiak ezartzeko ere balio dezakete.

Bestalde, oinetakoen analisiak orain arte gutxi ikertu diren arloak argitzeko aukera ematen du. Adibidez, gizarte maila ezberdinetako oinetakoak nola eragiten zuten ibiltzeko eran, oinetakoen ekoizpenean erosotasunaren faktoreak izan zezakeen garrantzia edo zein neurritan oinetakoak gizarte mailaren erosteko eta erakusteko ahalmenaren adierazleak diren.

Azkenik, esan beharra dago ikerketa lan honen ondorioak ez direla definitiboak, izan ere, materialak denbora gehiagorekin aztertu beharko dira zehetasun guztiak ikertu ahal izateko eta narruaren jatorria eta beste aspektu batzuk aztertu gabe gelditu dira. Bestalde, lan

honetan oinetakoen irakurketa arkeologikoa egiteko modu bat proposatzen da, baina ez da bakarra, hain zuzen ere ikerketa egiteko modu ezberdinak daude lortu nahi diren emaitzen arabera. Hortaz, ikerketa honen emaitzak, beste ikerketa batzuk egiteko oinarria izan daitezke, baina kontuan izan behar da lan honen ondorioak ezin direla biztanleria osoari orokortu biztanleria oso zehatz bat errepresentatzen dutelako, oinetakodunak.

Laburbilduz, ikerketa honek eztabaida berriak ireki nahi ditu oinetakoen inguruko ikerketa eta interpretazioetan. Horrela, oinetako berezi hauek Ermualdeko Andra Mariko historian egin dezaketen aportazioa kontsideratu daiteke, eta era berean, lan honek Aro Modernoko oinetakoen ikerketan ezagutza gehitu dezake.

6. BIBLIOGRAFIA

- Azkarate, A., & Escribano, S. (2014). De la arqueología histórica a la arqueología del colonialismo, Una reflexión desde la experiencia europea. *Arqueología de los primeros asentamientos urbanos españoles en la América Central y Meridional*, Actas del I seminario internacional, 87-109. Mairera libros.
- Barrachina, C. P. & Escribano, S. (2011). Las producciones cerámicas vascas de época moderna: un caso práctico de arqueología histórica. *Actas das IV Jornadas de Jovens em Investigação Arqueológica*, 1, 219-224. Algarbeko Unibertsitatea.
- De La Puerta Escribano, R. (2008). La Moda Civil En La España Del Siglo XVII: Inmovilismo e Influencias Extranjeras. *Ars longa: cuadernos de arte*, 17, 67-80.
- Escribano Ruiz, S. & Martínez Izquierdo, D. (2020). Intervenciones arqueológicas en el asentamiento de origen Medieval de Santa Maria del Yermo (Laudio, Araba). *Informes preliminares Campañas 2014-2018*.
- Escribano, S. (2018). Ermualde. El devenir de una parroquia de origen medieval. *Aztarna*, 50, 40-43.

- Funari, P. P. A., & Brittez, F. R. (2006). Introducción. In Funari, P. P. A., & Brittez, F. R. (kop), *Arqueología Histórica en América Latina. Temas y discusiones recientes (17-19. orr)*. Mar del Plata, Suárez/Unicamp.
- Giorgi, A. (2013). *De la vanidad y de la ostentación. Imagen y representación del vestido masculino y el cambio social en España, siglos XVII-XIX*. (Doktorego tesia, Murtziako Unibertzitatea).
- Imízcoz Beunza, J. M^a., García Fernández, M. & Esteban Ochoa de Eribe, J. (2019). Algunas consideraciones acerca de los modelos civilizadores: hacia una lectura social de la gestación y difusión de la civilización. In Imízcoz Beunza, J. M^a., García Fernández, M. & Esteban Ochoa de Eribe, J. (koor). *Procesos de civilización: culturas de élites, culturas populares. Una historia de contrastes y tensiones (siglos XVI-XIX) (9-25. orr)*. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco.
- Marin Monasterio, G. (2019). *Differences in diet associated with status, sex and age in a post-medieval rural population from the Basque Country (Spain). Isotopic analyses of bulk collagen from bone and dentine*. (Master bukaerako lana, Yorkeko Unibertsitatea).
- García Collado, M. I. (2019). Informe osteoarqueológico de la población humana medieval y de época moderna de Santa María del Yermo (Llodio, Álava). Qark Arqueología.
- Montón, S. & Abejez, L. (2015). ¿Que es la cosa llamada Arqueología Histórica?. *Complutum*, 26, 1, 11-35.
- Puškorius, A. (2012). Renaissance Footwear as a Mark of Social Differentiation. *Archaeologia Báltica*, 17, 158-170.
- Quirk, L. & Beaudoin, M. (2012). If the Shoe Fits: Analysis of Nineteenth Century Shoes. *KEWA* 11, 27–32.

- Salerno, M. A. (2009). Zapatos rotos: Una aproximación al alzado en arqueología histórica. Actas del VI Congreso Argentino de Americanistas. Sociedad Argentina de Americanistas, Buenos Aires.
- Salerno, Melisa A. (2006). *Arqueología de la Indumentaria: Prácticas e Identidad en los Confines del Mundo Moderno (Antártida, siglo XIX)*. Buenos Aires, Del Tridente.
- White, C. L. (2009). Single Shoes and Individual Lives: The Mill Creek Shoe Project. In White C. (ed), *The Materiality of Individuality. Archaeological Studies of Individual Lives (141-159. orr)*. New York, Springer.

WEBGRAFIA:

- Bata Shoe Museum (2020), Standing TALL: The Curious History of Men in Heels. Toronto, Canada. Eskuragarri hemen:

<http://batashoemuseum.ca/standing-tall-the-curious-history-of-men-in-heels/>
- Imízcoz Beunza, J. M. (et al.) (2020). Euskal Herriko Historia. Aro Modernoa. Auñamendi Entziklopedia. (Kontsulta data: 2020ko Maiatzaren 16a). Eskuragarri hemen:

<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/euskal-herriko-historia-aro-modernoa/ar-154221/>
- Lileyko, J. (1987). Anonymous Shoes of Sigismund Augustus. Wikimedia (Kontsulta data: 2020ko Maiatzaren 12a). Eskuragarri hemen:

https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Anonymous_Shoes_of_Sigismund_Augustus.jpg
- Metropolitan Art Museum. The Collecton. (Kontsulta data: 2020ko Maiatzaren 14a). Eskuragarri hemen:

<https://www.metmuseum.org/art/collection/search#!/search?material=Footwear%7CSoes&era=A.D.%201600-1800&perPage=80&offset=0&pageSize=0&sortBy=Relevance&sortOrder=asc&searchField=All>

- Rijksmuseum. The Museum of the Netherlands. Linkermuil, maat 35.5, versierd met een rij diagonaal geplaatste korte insteken over de wreefboog. (Kontsulta data: 2020ko Maiatzaren 14a). Eskuragarri hemen:

<https://www.rijksmuseum.nl/en/collection/NG-NM-7810>